



Gkef fGdA

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa
Federación Guipuzcoana de Deporte Adaptado

NOLA ESKATU SEXU-IZAERAKO DELITUEN ZIURTAGIRIA?

2016tik, lanean edo boluntario bezala adingabeekin ohiko harremana duten norbanako guztiek Sexu-izaerako Delituen Ziurtagiria aurkeztu behar dute.

Dokumentu horren bitartez sexu-izaerako delitu eza egiaztatzen da; ziurtagiria doan da eta Espainiarako bakarrik balio du. Horrenbestez, atzerrian adingabeekin lan egiteko ziurtagiria behar dutenek Zigor-aurrekarien Ziurtagiria eskatu beharko dute.

Sexu-izaerako Delituen Ziurtagiria aurrez aurre edo telematikoki eska daiteke:

- Eskaera online egiteko ziurtagiri elektronikoa behar duzu, eta [Justizia Ministerioaren web ataritik eskatu behar duzu](#). Bide horretatik ziurtagiria unean bertan eskuratuko duzu.

- Eskaera aurrez aurre egiteko, Justizia Ministerioaren Lurralde Kudeatzailetzetara, **jo behar duzu**.
 - ❖ Eskaera aurrez aurre egiteko NAN, Pasaporte, ANA edo dagokizun herrialdearen ziurtagiria aurkeztu behar duzu. Ziurtagiriaren kopia bat eramatea gomendatzen dizugu.

 - ❖ Interesdunaren izenean eskaera beste norbaitek egiten badu, arestian aipatutako dokumentazioaz gain, bere identifikazio zenbakia ere aurkeztu beharko du. Horrez gain, eskaera egiteko baimena egiaztatzen duen dokumentua ere aurkeztu beharko du (notarioaren aurrean baimendutako dokumentu publikoa, eta eskaera gurasoek egitekotan, familia-liburua).

GOBERNUAREN ORDEZKARIORDETZA GIPUZKOAN

Pio XII.aren plaza, 6

20010 Donostia

Gipuzkoa

Telefonoa: 943 989 000

